

EUSKADI AKTIBOAN AKTIBOAK (JARDUERAK ETA/EDO BALIABIDEAK) INSKRIBATZEKO INPRIMAKIA NOLA BETE JAKITEKO GIDA LABURRA

Osasunerako aktibo bat inskribatzeko, jarduera komunitario bat izan edo baliabide bat izan, ezinbestekoa da Euskadi Aktiboa sarean **erregistratuta egotea**. Erabiltzaile-izen bat, posta elektronikoko helbide bat eta pasahitz bat soilik beharko dituzu. Erregistratutakoan, mezu elektronikoko bat jasoko duzu, zure **kontua aktibatze**ko estekarekin. Gorde ezazu mezu elektronikoko hori zure erabiltzailea eta pasahitza eskura izan ditzazun, ahazten bazaizkizu ere. Mezurik jasotzen ez baduzu, begiratu, mesedez, ea “Mezu baztergarrien” artean duzun edo spam-karpetan jaso duzun, eta jarri harremanetan Euskadi Aktiboarekin helbide honetara idatzita: euskadiaktiboa@euskadi.eus.

Programak bi erregistro-motatan sailkatzen ditu osasunerako aktiboak:

- Jarduerak: (tailerrak, ikastaroak, jardunaldiak...).
- Osasun-baliabideak: komunitateak berak identifikatu eta aitortutako faktoreak dira, zeinak pertsonen, komunitateen eta herrien gaitasuna indartzen duten, osasuna eta ongizatea zaintzeko edo hobetzeko (elkarteak, parkeak, igerilekuak, bideak...).

ERREGISTRATU ZARENEAN, JARDUERAK ETA/EDO BALIABIDEAK SARTZEKO:

Ez erabili letra larririk inprimaketan aktiboak erregistratzeko idazten dituzun datuetan; hala bada, gehienez ere, akronimoak edo siglak idazteko bakarrik erabili.

Kargatu erregistratu nahi den jardueraren edo baliabidearen irudi deskribatzaile bat; irudia 300x300 pixel ingurukoa izan behar da edo ez 600k baino gehiagokoa.

Nahitaez bete behar dira ‘*’ duten eremuak.

Garrantzi berezia duten hiru eremu daude, horren arabera sailkatzen eta aurkitzen baitira eskura dauden jarduerak, eta, horrenbestez, arreta berezia jarri behar zaie: jarduera zer adinetakoei eta sexuetakoei zuzenduta dagoen, eta non egingo den.

“Adina” eremuan, jarduera zer adinetakoei zuzenduta dagoen kontuan hartuta, adin horretatik gertuen dagoen taldea markatu behar duzu.

Jarduerarako adin bat finkatu ez bada, “Herritarrak, oro har” eremua markatu behar da.

“Jarduera zuzendutako populazioari buruzko beste xehetasun batzuk” izeneko eremuan, zehaztasun gehiagorekin definitu daiteke jarduera zer populazio motarentzat den; adibidez: “Lehen hezkuntzako ikasleak” edo “Gaixo kronikoak”.

“Jarduera-mota” eremuan, bi jarduera mota erregistra daitezke:

- “Jarduera etengabea”: item hori markatuko dugu baldin eta jarduera eskariaren arabera egiten bada, betiere kontuan hartuta gutxieneko pertsona kopuru jakin batek izena eman behar duela. Esate baterako, erretzeari uzteko tailer bat, zeina egingo den gutxienez 6 pertsonak izena ematen badu.
- “Aldi baterako jarduera”: jarduera noiz egingo den badakigunean. Esate baterako, sukaldaritza osasungarriaren ikastaro bat, zeina ostegunero egingo den 2015-01-20tik 2015-06-20ra (proiektuaren deskribapen osoari eskainitako atalean jarduera ostegunetan egingo dela agertuko litzateke).

Garrantzitsua da jarduera egingo den edo baliabidea dagoen lekuaren helbidea ondo erregistratzea. Kalearen zer zenbakitan egingo den ez badakigu, pantailan beherago dagoen mapara sar gaitezke, han bertan klik eginda, eta saguaren gurpilarekin handitu, sinboloa sartzeko. Saguaren erakuslearekin jarduera egingo den edo baliabidea dagoen leku zehatza seinala daiteke.

Kokaleku horren koordinatuak erabiliko ditu aplikazioak jarduera egingo den edo baliabidea dagoen lekutik zer distantziatara gauden adierazteko, eta behar izanez gero, haraino gidatzeko. Distantziak lerro zuzenean kalkulatzeko dituzte *google maps*-ek, eta, horrenbestez, baliteke benetako distantziarekin bat ez etortzea.

Jarduera leku batean baino gehiagotan egiten bada, “Gehitu lekua” botoia sakatuta jarduera egingo den lekuak gehitu daitezke.

Helbide elektronikoa, telefono-zenbakia eta jarduera egunak ezinbestekoak dira jardueren edo baliabideen arduradunekin harremanetan jartzeko, eta izan daitezkeen aldaketen berri emateko.

Garrantzitsuak dira, halaber, interesa izan dezakeen edonor jardueraren antolatzaileekin harremanetan jartzeko.

Jarduera bat programatu gisa sartu baduzu, jarduera egingo den egunak igarotakoan, “Historikoa” atalera igaroko da, eta aldaketa horren jakinarazpena bidaliko da inprimakian datorren helbide elektronikora. Jarduerak aktibo jarraitzen badu edo beste data batean berriz egin behar bada, “Nire jarduerak” atalean editatzeko eta eguneratzeko aukera izango duzu, eta, berriz ere, aktibo gisara agertuko da.

Jarduera baliozkotu zenetik urtebetera, jarduera aztertzeke eta, beharrezkoa bada, eguneratzeko eskatuko zaizu.

“Amaitu” botoia sakatu aurretik:

- Berrikusi erregistratu dituzun datuak eta agertuko zaizun laburpena.
- Akatsen bat ikusten baduzu edo argazkia behar bezala ikusten ez bada, egin atzera akatsak zuzentzeko, “Atzera” botoia erabilita.

Inskribatzeko inprimakia bete eta baliozkotzen denean, jarduera erregistratzeko erabili duzun helbide elektronikoan jakinarazpen bat jasoko duzu, baliozkotu dela adierazteko. Une horretatik aurrera ikusgai egongo da webgunean.

Edozein zalantza argitzeko, jarri harremanetan gurekin, helbide elektroniko honetara idatzita: euskadiaktiboa@euskadi.eus .